

Mondragon Unibertsitateak eta Gipuzkoako Ganberak hitzarmena sinatu dute Executive MBA Masterra, abian jartzeko Donostian

2009/05/27

Mondragon Unibertsitateak eta Gipuzkoako Ganberak Executive MBA Masterra urritik aurrera abian jartzeko hitzarmena sinatu dute. Masterra profesionalentzat eta zuzendarientzat da, eta unibertsitateen eta negozio-eskolen graduondokorik preziatuena da. Donostian emango da, 2009/2010 ikasturtean hasita. Bestalde, bi erakundeek esperientzia handia dute profesionalak eta zuzendariak prestatzen eta, berriro ere, bat egin dute lurraldeko enpresa-arloa indartzeko apustu estrategiko honetan, lanean dauden profesionalak prestatuko baitituzte. Masterraren helburua profesionalen gaitasunak garatzea da, enpresa-kudeaketa eraginkorragoa izan dadin. Horretaz gain, gaur egungo krisi ekonomikoari aurre egiteko tresnak ere emango dizkiegu, bestelako ikuspegiak eta ezagutzak landuko dituzte eta.

Izan ere, graduondoko programaren helburuak honakoak dira: enpresen eta enpresen kudeaketarako arlo nagusien osoko ikuspegia ematea partaideei; berrikuntza eta aldaketa bultzatzea jarrera pertsonal eta profesional gisa; eta buruzagitzaren ahalmena garatzea, horretarako behar diren trebetasunekin eta gaitasunekin, enpresa-proiektuak aurrera eramateko ezinbestekoak diren aldetik. Laburbilduz, profesionalen artean berrikuntza eta ekintzaitza sustatzea da helburua.

Krisiari aurre egiteko masterra

MBA Executive Masterrak jarraipena izango du eta, beraz, edukiak unean uneko beharretara egokituko dira. Gaur egun, krisi ekonomiak aldatu egin du enpresen jarduera-ingurua. Hori dela eta, enpresetako arduradunek, inoiz baino gehiago, zalantza eta aldaketa ekonomiko ugari ekoeratu behar dute. Gainera, aipatutakoaz gain, testuingurua guztiz lehiakorra da.

Horregatik, zuzendariak buruzagitzarako gaitasun handia behar dute, taldeak proposatutako helburuetara bideratzeko. Ildo horretatik, gaitasun analitikoak behar dute, egoera konplexuei erantzuna emateko. Ezinbestekoa dute komunikatzeko gaitasuna eta osoko ikuspegia izatea, zuzendaritza-jarduera garatzeko ezagutzak eraginkortasunez, sormenez eta gizarte-erantzukizunez erabiltzeko.

Hain zuzen ere, Executive MBA Masterra horretara dago bideratuta: partaideak eraginkor aritzea bilatzen du, bai inguru honetan, bai bestelakoetan, ingurua oso zaila, zalantza betea eta guztiz aldakorra delako.

Programa

Programaren zuzendaritza eta tutoretza akademikoa Mondragon Unibertsitateak izango ditu. Izan ere, 10 urte baino gehiagoko esperientzia du graduondoko prestakuntzan eta 20 titulu eskaintzen ditu. Esate baterako, iaz 454 ikasle aritu ziren unibertsitatearen graduondokoetan eta hirugarren zikloan. Bestalde, Gipuzkoako Ganberak esperientzi ahandia du zuzendariak prestatzen. Iaz, 700 zuzendari izan zituzten prestakuntza-programetan.

Ildo horretan, diziplina anitzeko irakasle-taldea izango dute: unibertsitateko irakasleak, aholkulari adituak eta enpresa-arloa gertutik ezagutzen duten esperientzia handiko enpresariak. Bestalde, metodologia elkarrengileak erabiliko dute, ikasleen parte hartzea bultzatuko baita, protagonistak izan daitezela. Proiektuak banaka eta taldeka landuko dira, partaideen artean lankidetzara eta bateratze-lana



sustatzeko.

Masterrean, 20 profesionalek parte hartu ahal izango dute, unibertsitate tituludunak eta, gutxienez, bost urteko esperientziadunak. Masterrak lau atal nagusi izango ditu guztira.

- Lehen atala: Inguruaren eta Enpresaren azterketa. Estrategia, marketing, finantza, giza baliabide eta eragiketen arloak aztertuko dira.
- Bigarren atala: Zuzendaritzarako eta Buruzagitzarako Trebetasunak. Horretarako, hiru eguneko bi egonaldi antolatuko dira, etorkizuneko buruzagiek izan behar dituzten gaitasunak jorratzeko.
- Hirugarren atala: Nazioarteko Testuingurua. Partaideek aukera izango dute astebeterako herrialde emergente batera joateko, bertako errealitatea ezagutzeko. Horrela, prestakuntza eta enpresa-esperientzietako ezagutzak bateratuko dituzte.
- Eta, azkenik, laugarren atala: Master Amaierako Proiektua. Partaideak erabili eta finkatu egin beharko du aurreko faseetan ikasitakoa. Bakoitzak bere proiektua auzeratu beharko du, banaka, eta irakasle baten tutoretza izango du. Ikasleak aurkeztu eta defenditu egin beharko du proiektua.

Masterra Gipuzkoako Ganberan emango da, ostiral arratsaldetan (15:30etik 20:30era) eta larunbat goizetan (09:00etatik 14:00etara). 2009ko urriaren 16an hasi eta ekainaren 26an amaituko da. Master Amaierako Proiektuak abenduan defendituko dituzte. Masterrak 12.750 euroko kosuta du.

Informazio gehiago jasotzeko, 943718009 telefonora deitu.